



# **ATARIKO PROBA**

## **1.HE**



- 1.- *Nola zaude orain .....*?
  - a) osasunerako
  - b) osasunarentzat
  - c) osasunaren
  - d) osasunez
  
- 2.- *Botika batzuk eman ....., baina ez ..... onik egin.*
  - a) dizkiote / diote
  - b) dizkidate /dugu
  - c) diote / ditu
  - d) digute / dizkigu
  
- 3.- *Zer da lan honetan ..... gustatzen zaizuna?*
  - a) gehiago
  - b) gutxien
  - c) txikiegi
  - d) hobe
  
- 4.- *Abuztuan gaude eta bi hilabete barru egingo dizute ekografia berriro, hau da, .....*
  - a) martxoan.
  - b) urrian.
  - c) urtarrilean.
  - d) irailean.
  
- 5.- Zein da ZUZENA?
  - a) Egon ezazue isilik, mesedez!
  - b) Ez zaitez irratia piztu, mesedez!
  - c) Ez ezazu zaratarik egin, mesedez!
  - d) Ireki zaitez atea, mesedez!



- 6.- *Urte asko daramatzagu elkarrekin lanean. Konfiantza osoa dut .....*
- a) erizainaren.
  - b) erizainarentzat.
  - c) erizainarengan.
  - d) erizainari.
- 7.- *Ezin da inor ..... gela horretara arropa egokirik gabe.*
- a) sartzeaz
  - b) sartu
  - c) sartzen
  - d) sartzea
- 8.- *Aurpegia erlaxatzeko, zabaldu begiak eta ahoa ahal duzun guztia, ..... zimurtu arte.*
- a) garuna
  - b) birika
  - c) kopeta
  - d) urdaila
- 9.- *Larrialdietara ..... heldu zen.*
- a) gauean hamaikan
  - b) gaueko hamaiketan
  - c) gauean hamaikan
  - d) gaueko hamaikak
- 10.- *Solairu honetako gelarik ..... da, baina besteak baino ..... da, leiho txikia du eta.*
- a) handiagoa / ilunena
  - b) handiena / ilunegia
  - c) handiegia / ilunena
  - d) handiena / ilunagoa



- 11.- *Kontsultara joan nintzenean, probaren emaitzak .....*
- a) ematen ziguten.
  - b) eman zizkidan.
  - c) ematen nizkion.
  - d) emango nizkion.
- 12.- *Eman al dizute ezer eztula kentzeko? Bai, ..... eman didate.*
- a) ezer ez
  - b) edozein
  - c) zerbait
  - d) ezer ere
- 13.- *Gure zerbitzuan egin ..... aldaketekin funtzionamendua asko hobetu da.*
- a) zigun
  - b) zitzaigun
  - c) genituen
  - d) genion
- 14.- *Abuztuaren ..... bitartean, Anderrekin aldatuko dut txanda.*
- a) 3etatik 16ra
  - b) 3tik 16ra
  - c) 3tik 16etara
  - d) 3etatik 16etara
- 15.- *Lankideek kafe bat hartzen ..... esan didate, baina ez dut astirik.*
- a) geratzeko
  - b) geratzea
  - c) geratzen
  - d) geratzera



16.-*Xiringa eta orratz berriak erabiltzen ditugu beti. Armairu ..... dauzkagu.*

- a) horretan
- b) hor
- c) horretako
- d) horko

17.-*Jarraitu elkarrizketa:*

— *Alberto, ba al zatoz gurekin bazkaltzera?*

— .....

- a) Bai, badatoz.
- b) Bai, badakit.
- c) Bai, banoa.
- d) Bai, badabiltza.

18.-..... *da soberan dauden botikak etxeko botikinean gordetzea.*

- a) Arriskatu
- b) Arriskatuta
- c) Arriskurik
- d) Arriskutsua

19.- *Orkatila ..... nuen eta orain handituta daukat.*

- a) bihurritu
- b) irentsi
- c) bizkortu
- d) indartu

20.-..... *sartu dute operazio-gelan eta oraindik ez dute atera.*

- a) Seiak eta hoge gutxi
- b) Seiak hoge gutxitan
- c) Seiak eta hogeak gutxitan
- d) Sei hoge gutxiak



21.- Zein da erantzun ZUZENA?

— *Ezin dut gehiago; lasaigarri bat behar dut. Deitu erizainari, mesedez!*  
— .....

- a) Lasai, eskaileretatik igotzen naizenean honantz etorri da.
- b) Lasai, orain etortzen ari zela erizaina.
- c) Lasai, berehala etorriko dela esan dit.
- d) Lasai, orain etortzen da erizaina.

22.-*Ez arduratu, ez da ..... errua izan.*

- a) noren
- b) edozein
- c) norbait
- d) inoren

23.-*Hartu arnasa ....., baina astiro!*

- a) zorrotz
- b) samur
- c) mehe
- d) sakon

24.-*Ikusi nauenean, berehala etorri ..... eta zorionak eman .....*

- a) dizkigu / digute.
- b) zait / dizkit.
- c) didate / zaizkigu.
- d) zaizkit / diet.

25.-*Autoa ospitalearen aurreko plazaren azpian utzi nuen atzo; gaur, ordea, inguruko kale batean, egun erdiz aparka daiteke eta. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Atzo autoa ospitalearen aurreko plazan utzi nuenez, gaur ere han aparkatu dut egun erdiz.
- b) Inguruko kale batzuetan egun erdiz aparka daitekeen arren, autoa bi egunetan ospitalearen aurreko plazaren azpian sartu dut.
- c) Atzo autoa ospitalearen aurreko plazaren azpian utzi nuen, baina gaur ospitale ondoko kale batean.
- d) Autoa ospitalearen aurreko plazaren azpian utz daiteke, baina bi egunetan egun erdiz aparka daitekeen kale batean utzi dut.



26.-*Ba al dakizu nork hartu ..... gaueko txanda?*

- a) duen
- b) duenik
- c) du
- d) duela

27.-*Anbulatoriora autobusez etor zaitezke; sarrera nagusiaren ondoan gelditzen dena har .....*

- a) baduzu.
- b) daitezke.
- c) dezakezu.
- d) zaitez.

28.-*Jarraitu elkarrizketa:*

— *Ba al dakizu noiz emango didaten alta?*  
— .....

- a) Bai, hala izango da!
- b) Ez, baina estimatzen dizut!
- c) Guztiz ados!
- d) Ez nago seguru!

29.-*Ardoa neurritz hartzea ez dela kaltegarria esan diot, mesedegarria baizik. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Ardoa gutxi zein asko hartu, ez dela inoiz kaltegarria esan diot.
- b) Hauxe esan diot: "Ardo asko hartzea txarra da, baita gutxi hartzea ere".
- c) Nahiz eta kalterik egin ez, ez dela komenigarria ardorik hartzea esan diot.
- d) Ardoa neurrian hartzen bada, ez duela zertan kaltegarria izan esan diot.

30.- *Guk ez ..... ezer Zuzendaritzak atera zuen arau horri buruz.*

- a) geunden
- b) genekien
- c) geneuzkan
- d) genbiltzan



31.-*Borondatezko alta ....., agiri hau .....*

- a) hartzen nahi baduzu / izenpetu beharko duzu.
- b) hartu nahi baduzu / izenpetu beharko duzu.
- c) hartu nahi izaten baduzu / izenpetuko behar duzu.
- d) hartu nahi baduzu / izenpetzen behar duzu.

32.-Jarraitu elkarrizketa:

— *Ba al duzu momentutxo bat?*

— .....

- a) Bai, zer nahi duzu?
- b) Baita zuri ere!
- c) Ez dut jakingo, bada!
- d) Ez horregatik!

33.-*Zergatik ireki duzu leihoa?*

- a) Jende gehiegi egoten.
- b) Arnasa gaizki hartzea.
- c) Beroegi egoten dela.
- d) Usain txarra dagoelako.

34.-*Ez zaizu komeni jatordu ..... egitea.*

- a) astunik
- b) alferrik
- c) lanpeturik
- d) zabalik

35.-*Zer gertatu ..... aurpegia ubelduta edukitzeko?*

- a) zitzaion
- b) zizkion
- c) zitzaizkien
- d) zioten



36.-Gure osasuna nola dagoen jakiteko, .....

- a) zalantzak argitzen ditugunean.
- b) probak ezin direlako egunero egin.
- c) onena kaltegabeko proba batzuk egitea da.
- d) nahitaezkoa baita txekeoa urtero-urtero errepikatzea.

37.-Ez dakit zer ordutan hartuko ....., eta ez egon itxaroten!

- a) gaituzten
- b) nion
- c) didazun
- d) zitzaidan

38.-Hartu agindu ..... dosia, ez gehiago.

- a) dizkizudanak
- b) dizudana
- c) dizkizudan
- d) dizudan

39.-Mahai gainean kaxa gehiegi ..... badituzu, erori egingo dira.

- a) harrapatzen
- b) agintzen
- c) aurkitzen
- d) pilatzen

40.-Zein da ZUZENA?

- a) Izan al duzu inoiz lo egiteko arazorik?
- b) Zenbat ordu egiten duzu lorik egunean?
- c) Ez al dituzu ezagutzen erremediorik batzuk?
- d) Egin al duzu loak bart gauean?



41.- Jarraitu elkarrizketa:

— *Nola pasatu duzu gaua?*

— .....

- a) Ez da izango!
- b) Beharbada!
- c) Ezin hobeto!
- d) Arrazoia duzu!

42.- *Txertoa ....., sukarra eta hotzikarak izaten ditu.*

- a) hartzen
- b) hartzen duen guztietan
- c) hartzea
- d) hartu zuenean

43.- Zein da ZUZENA?

- a) Osasun-zentrora sartu ginenean, medikua heltzen zen.
- b) Bihar ekartzen dizut erradiografia.
- c) Paper bat falta dela esan digunean, urduri jarri gara.
- d) Gaur sasoiz bagoaz, lehenengoak izaten gara.

44.- *Kolpe handia hartu zuen eta burua ..... joan zitzaion.*

- a) ugari
- b) batere
- c) hainbeste
- d) pixka bat

45.- *Ondo egin duzue haurra anbulatoriora ekarrita;....., ez da ezer larririk.*

- a) dena dela
- b) orduan
- c) ere bai
- d) bestela



---

## ORDEZKO GALDERAK

46.- *Ordua ....., deitu goizez.*

- a) eskatzeak
- b) eskatzeaz
- c) eskatzea
- d) eskatzeko

47.- *Tren-geltokia ..... oso hurbil dago.*

- a) ospitalearen
- b) ospitaletik
- c) ospitaleari
- d) ospitaleko

48.- Zein EZ da gorputz-atala?

- a) Zorabioa
- b) Saihetsa
- c) Masaila
- d) Bekaina



## ATARIKO PROBA - 1.HE

### ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1	D	2	A	3	B	4	B	5	C
6	C	7	B	8	C	9	B	10	D
11	B	12	C	13	C	14	B	15	A
16	A	17	C	18	D	19	A	20	B
21	C	22	D	23	D	24	B	25	C
26	A	27	C	28	D	29	D	30	B
31	B	32	A	33	D	34	A	35	A
36	C	37	A	38	D	39	D	40	A
41	C	42	B	43	C	44	D	45	A

#### ORDEZKO GALDERAK

46	D	47	B	48	A
----	---	----	---	----	---